AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA SAILA

4358

273/2024 DEKRETUA, irailaren 17koa, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria izendatzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18.j), 26.6 eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Hezkuntzako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2024ko irailaren 17an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Inge Gorostiaga Luzarraga andrea Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendari izendatzea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek 2024ko irailaren 20tik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko irailaren 17an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.